

## **Elkartasuna deskonfinatu eta globalizatzea: COVID-19aren krisialditik modu bidezko eta inklusiboan atera gaitezen**

Zigmunt Bauman soziologo poloniarrek *Society Under Siege* lanean adierazi zuen moduan, "orain inoiz baino gehiago, gizateria bidegurutze baten aurrean dago: bide batek lankidetzara darama, besteak erabateko suntsipenera". Hain zuzen, argi dago mundu hau globalizatuta eta interkonektatuta dagoela. Inork hori zalantzan jartzen bazuen, COVID-19aren hedapenak argi utzi du: ez dago krisialdi hau bere kabuz gainditzeko gai den naziorik, eta ezin dugu inor ahaztu erronka global honi arrakastaz egin nahi badiogu aurre.


Koronabirusa Euskadira iritsi zenetik, aste gutxi batzuetan agerian geratu da gure ekonomia- eta gizarte-ereduaren ahultasuna. Etxean geratu behar izan dugu, mugikortasunari uko egin, lan-ereduari buruz berriro hausnartu eta gure ekoizpen-kateak eta geure elikadura ere berrikusi. Laburbilduz, biztanleria osoa zaurgarritzat hartu ahal izateak ispilu baten aurrean jarri gaitu, eta ikusi dugu hemen, munduko gainerako lekuetan bezalaxe, urrun gaudela zaintzaren behar sozialaren arazoa konpontzetik. Hala, pandemiak agerian jarri ditu askotariko desberdinkeria estrukturalak: estaldura publiko mugatua, lan-sektore prekario eta prekarizatua, karga gehiegi dituzten familiak –zaintzak beren gain hartu dituztelako– eta genero-desberdinkeria, hala soldatapeko esparruan nola familien barneko banaketan eragina duena. Egoera are okerragoa da 2008ko krisialditik gizarte-murrizketak jasaten ari diren herritar zaugarrirentzat. Horren adibide dira, besteak beste, etxerik ez duten eta/edo kalean bizi diren pertsonak, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak, adinekoak, desgaitasunen bat duten pertsonak, migratzaileak, ijitoak, langile informalak, etxeko langileak eta aldi baterako langileak; alegia, sistemaren marjinetan dauden pertsonak.

Urgentzia eta alarma zabaldu dira, baina, aldi berean, zenbait gizarte-ekimen sortu dira herritarren artean, hala nola osasun-langileei eskainitako txalo-zaparradak edo etxetik irten ezin dutenentzako erosketak egiteko ekimenak. Horiek guztiak konfinamenduaren ondorioz sortu den lankidetzaren eta elkartasunaren adibide dira, lehen herritartasun-ariketa gisa. Izan ere, itxuraz berrogeialdi honek isolatu egin bagaitu ere, bakardade hori denon artean bizi dugu, eta gure desmemoriatik berreskuratzen ari gara giza generoaren kontzeptua eta ongizate komunaren ideia. Gaur egun gizarte- eta kultura-aniztasunean bizi gara eta, mundu-mailako krisialdi honen aurrean, elkarbizitzen, elkar zaintzen eta elkar babesten ari gara, jaramonik egin gabe inoren paperei, nazionalitateei edo identitateei. Badakigu birusak diskriminatu egiten duela, desberdinkeriaz jokatzeko duela eta ez diela berdin eragiten pertsona guztiei. Alabaina, ontzi interdependente berean gaude denok eta, hortaz, pandemia eta horren ondorio larriak geldiarazteko, beharrezkoa da birusak gure gizarteko eta Hegoalde globaleko biztanleria zaugarrienetan aurrera egin dezala ekiditea. Ildo horretan, aipatzekoa da herrialde pobretuetako osasun-sistemak ahulak direla, eta horri gehitu behar zaio estatu horiek duten gainzorpenera eta leku horietako erakundeen ahultasun estrukturala. Horrek guztiak iragartzen digu zerbitzuak kolapsatzeko arrisku handia eta kudeatzeko gaitasun oso mugatua dituztela, eta horrek, noski, krisialdia luzaroan iraunarazten eta zabaltzen lagunduko du. Beste era batera esanda, badakigu gure herritar globalek COVID-19ari aurre egiteko konponbidea nazioarte-mailan koordinatu behar dela, gure mugetatik harago doan erantzun inklusibo bat emanez. Bestela, ez da ez eraginkorra ez efizientea izango.


Hori guztia ikusita, ezohiko egoera honek gogorarazten digu birusa gaindituko duen proiektu politiko eta sozialak arau etiko bati jarraitu behar diola, zeinaren arabera bizitza guztiei balio berdina eman behar zaien, non jaio diren kontuan hartu gabe. Gainera, proiektu horrek hainbat gizarte-eragileren arteko erantzunkidetasunaren alde egin behar du, giza eskubideak ahalbidetzeko eta onartzeko eta, hortaz, inor atzean ez geratzeko. Berekoikeria, lehiakortasuna edo kontsumismoa oinarri dituzten balio zaharrak alde batera utzita, krisialdi honetan balioa eman behar zaio ongizate komunari, zaintzak eta elkartasun unibertsala erdigunean jarritz, zabaldu eta indartu egingo diren kalitatezko zerbitzu publikoak eraikitze, behar duten herritar guztiei estaldura emate aldera. Horrenbestez, krisialdi honen ondorengo berreraikitze-neurriek ikuspegi kritikoa izan beharko dute abiapuntu, eta 2030 Agenda guztiz eraldatuko duen ibilbide bati ekin beharko diogu. Horretarako, arreta pertsona guztiengan eta ingurumenean jarri beharko dugu eta politika koherenteak egin beharko ditugu, giza eskubideak eta giza garapen jasangarria lortzera bideratuak, hala Euskadin nola kanpoan.

Azken batean, Euskadiko GGKEen Koordinakunde gisa, eta ikusita COVID-19aren hedapenak sortu duen krisialdia eta horrek mundu globalizatuko zati handi batean izango dituen gizarte- eta ekonomia-eraginak, krisialdiaren kausen eta ondorioen interpretazio okerra egitearen arriskuari buruz ohartarazi nahi dugu, eta eskatzen dugu elkartasun-loturak indartu daitezela mundu osoan zehar. Hori guztia aintzat hartuta, eta sistematikoki, proposamen hauek egiten ditugu:


- **Zerbitzu publikoak indartzea gizarteko esparru guztietan.** Egungo egoerak agerian uzten du erakunde publikoek osasuna bermatu behar dutela, funtsezko gainerako eskubideez gain. Pertsonen ongizatea eta giza eskubideak beste interes batzuen azpitik uzten dituzten diskurtsoen aurrean, zerbitzu publikoak mantentzeko eta etengabe hobetzeko eskatzen dugu, gizartearen garapen osoa bermatzen duten etorkizuneko inbertsio gisa.



- **Infekzioaren eraginpean dauden pertsona guztiei arreta emango dien kalitatezko osasun publikoa bermatzea, kaltetuen jatorria eta gizarte-egoera edozein izanik ere.** Pandemia honen globaltasunak agerian uzten du beharrezkoa dela osasun publikoko sistema indartsuak izatea, mehatxu masiboari aurre egiteko modukoak eta beren eskura dituzten baliabide guztiak mobilizatuko dituztenak osasun-estaldura unibertsala bermatzeko eta birusarekin kontaktuan dauden osasun-langileak babesteko.
- **Etxebizitzarako eskubidea blindatzea.** Horretarako, neurri hartu behar dira alokairuaren edo hipotekaren ordainketa atzeratu ahal izateko eta denontzako ur-, argi- eta konektagarritasun-hornidurak bermatzeko, baita ordaindu ezin dituztenentzat ere. Horrez gain, agintariei eskatzen diegu amaiera eman diozaiotela kalean bizi diren pertsonak jasaten duten muturreko zaugarritasun-egoerari, gizarte-arreta eta bizileku-euskarri duina bermatuz.
- **Zaintza-lanari balioa ematea.** Krisialdi honek agerian utzi du premiazkoa dela zaintza-lanaren hornitzaileen eta onuradunen ahalduntzea sustatzea, eta kontuan izatea ezkutuan geratzen den lan horrek, zeina funtsezkoa baita gainerako dimentsio ekonomikoek behar bezala funtziona dezaten, duen rol feminizatua. Horretarako, uste dugu beharrezkoa dela lana eta familia bateratzeko erraztasunak emango dituzten neurriak iragartzea eta gizarte-bazterkeriako egoeran dauden pertsonentzako sostengu ekonomikoa bermatzea.
- **Haurrak babestea eta hezkuntzarako eskubidea bermatzea.** Agintariei eskatzen diegu berma dezatela hezkuntza-ziklo guztietako ikasle guztiak behar diren bitartekoak dituztela beren prestakuntzarekin modu telematikoan jarraitzeko, irakasleek jarraipen egokia eginda. Bestetik, eskatzen dugu zaugarritasun-egoeran dauden haurrei ezohiko neurriak aplikatzeko, hala nola jantoki-laguntzak.
- **Larrialdi-egoera honetan gauzatzen diren ekintza guztietan genero-ikuspegi intersektionala eta aniztasun afektibo-sexualaren ikuspegia kontuan hartzen direla bermatzea.** Ildo horretan, administrazio publikoek gizarte-babes handiagoa eman beharko diete genero-indarkeriaren biktime diren emakumeei. Biktime eta kaltegilea etxe berean bizi diren egoeretan, genero-indarkeriaren arloko arreta, informazio eta aholkularitza juridikoko zerbitzuek ahalegin bikoitza egin beharko dute biktimei arreta emateko.
- Bizitzari eusteko ezinbesteko lana egiten duten **persona guztien lan-eskubideak aitortzea eta areagotzea.** Dena den, ez dugu alde batera utzi behar beren lan-jarduera eten behar izan duten langileei pizgarriak emateko aukera. Horretarako, agintariak alokairuen ordainketa atzeratzeko, murrizteko eta/edo eteteko aukera eman beharko dute, edo enplegu-suntsipen azkarra arinduko duten beste pizgarri ekonomiko batzuk. Era berean, eskatzen dugu sostengu ekonomikoa eman diezaiotela lan informalak edo prekarizatuak izateagatik horiek galtzeko arriskuan dauden kolektibo zaugarriak: etxeko langileak, migratzaileak, ABLEen bidez obra edo zerbitzu jakin baterako kontratuarekin lanean ari direnak, etab. Iraupen luzeko langabetuei dagokienez, uste dugu langabeziagatik prestazioak eta laguntzak luzatzeak beren egoera ekonomikoa hobetzen lagun dezakeela eta lagundu behar duela.



- **Ekonomia suspertzea, gizarte-justiziari eta trantsizio ekologikoari lehentasuna emanaz.** Ekonomiak lurra jo duen honetan, eskatzen dugu berreskuratzeko erabiliko dugun ibilbide-orria ez dadila izan 2008ko krisialditik ateratzen lagundu zigunaren berdina. Erreskaterako neurrien paketeak, hala Euskadin nola estatuko eta Europako mailan, xede hauek izan behar ditu, betiere erresilientziatik abiatuta: enplegu jasangarria eta kalitatezkoa babestea eta berriro sortzea, ETE-ei eta autonomoei laguntzea eta ekonomia sozial eta solidarioa sustatzea, ekoizpen-egitura berri gisa. Azken batean, eskatzen dugu bidezko trantsizio ekologiko baten oinarriak ezar daitezela, aberastasunaren banaketa zuzena defendatzeko, ekonomia espekulatiboa geldiarazteko eta iruzur fiskala jazartzeko.
- **Naturaren parte garena aitortzea.** Gure bizimodua bat-batean gelditzeak, bereziki mundu aberatsean, hankaz gora jarri du gure balioen eta bizi-esperientzien eskala, eta, are gehiago, agerian geratu da planeta berriro ere arnasa hartzen hasi dela. Izaki interdependente eta ekodependenteak gara. Naturaren parte gara eta ez dugu geurea balitz bezala erabili edo zaindu behar; planetarekin eta gainerako izaki bizidunekin erlazionatzeko beste formula batzuk bilatu behar ditugu, bizitzaren eta naturaren jasangarritasunaren alde eginez.
- **Gizarte-egitura eta herritarrek sareak eraikitzeak duten ahalmena indartzea.** Egun hauetan gure etxeetan nagusi diren elkartasuna, enpatia eta maitasun-keinuak erregai gisa baliatu behar ditugu politika eraldatzaileak sortzeko, gizarte zibila antolatua, libre eta desberdinkeriekiko nahiz bidegabekeriekiko kritikoa izan dadila lortzera begira. Hori horrela, beharrezkoa da herritarrek erabakitzeak espazioetan duten parte-hartzea sendotzea eta areagotzea, gobernantza demokratikoa, inklusiboa eta parte-hartzailea lortzeko.
- **Pertsona guztien askatasun publikoak bermatzea,** larrialdi-egoeraren deklarazioak justifikatzen duen murrizketa-esparru honen aurrean. Orain, inoiz baino gehiago, agintariek eta gizarte zibilak aurre egin behar diete mota guztietako indarkeriei eta gorroto-diskurtsoei. Oraingoan, dei egiten dugu alde batera uzteko krisialdiaren errua gizarteko-sektore edo pertsona jakin batzuei botatzen dioten mezuak, eta euskal administrazioei eskatzen diegu gizarte-eraldaketarako hezkuntzak emandako ikasketak aplikatzen jarrai dezatela, benetan inklusiboa izango den gizarte bat lortzeko.
- **Giza eskubideak errespetatzen dituen nazioarteko esparru justu baten alde egitea.** Horretarako, Nazioarteko lankidetzarako politika publikoa bermatzea eta finkatzea ezinbestekoa da, birusak ez ditzan kolapsatu osasun-sistema ahulak dituzten herrialdeak eta ez ditzan hankaz gora jarri Euskadiko GGKE-ek herrialdean bertan esku hartzeko dituzten estrategiak. Munduko interdependentsia estrukturala eta desberdinkeria-arrakala itzelak agerian jarri diren heinean, beharrezkoa da krisialdiari modu koordinatuan eta nazioarte-mailan aurre egitea, dagoeneko jasaten ari garen ondorio negatibo eta desberdinak arintzeko. Hori horrela, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu parte har dezala giza eskubideen aldeko nazioarteko esfera horretan eta kanpoko zorra barkatzeko lan egin dezala, herrialde pobretuek diru hori beste xede batzuetara bideratu ahal izan dezaten. Eskatzen diogu, halaber eta beste euskal erakunde guztiei, Garapenerako Laguntza Ofiziala areagotu dezatela eta, horrez gain, Euskadin bizi diren atzeritar guztien eskubideak berma ditzatela.



- **Gizateria gisa ditugun premiazko beste erronka batzuk ez ahaztea.** Gatazka armatuak, gosea, feminizidioak, homofobia, transfobia, errefuxiatuen egoera, klima-larrialdia, bioaniztasun-galeraren tasa azkarra, prebenitu daitezkeen gaixotasunen ondoriozko heriotzak... Mundu-mailako arazo horiek ez daude berrogeialdian, eta ez dago horiek albo batera uzteko balio duen justifikaziorik.

Une honetan, gure mina partekatzen duten herrialdeen babesa jasotzen ari gara, beste kasu batzuetan gure lankidetzak jaso duten herrialdeena. Izan ere, pandemia honetan ez dago mugarik edo harresirik. Euskadiko GGKEen Koordinakunde gisa, beti esan izan dugu pertsonen eta herrien arteko elkartasuna bi noranzkoko dela, eta, horregatik, orain Europa zaharreko gizarte eta herrialdeok ere ari gara elkartasun hori jasotzen. Pandemia globala bada, elkartasunak ere globala izaten jarraitu behar du, orain inoiz baino gehiago. Hori dela eta, GGKEek modu kolektiboan lan egiten jarraitzen dugu eta jarraituko dugu, han eta hemen, osasun-larrialdi honi erantzuteko eta gure gaitasun eta ezagutzak beste batzuen esku uzteko, osasuna –ondasun publiko eta globala den heinean– babesteko politikak eta neurriak ezar daitezkeen. Gero, krisialdi honetatik ateratzen garenean, etorkizunari begiratuko diogu jakinik –berriki bizitako esperientziagatik– gizakia gai dela bere buruari frogatzeko helburu komunak daudela eta bete daitezkeela, adorez jokatuz eta lankidetzak oinarri hartuta.

Orduan, orain bezala, elkarrekin egin beharko dugu lan, inor ere atzean utziko ez duen mundu hori eraikitzeko. Agian etorkizun horrek orainaldi honen antza izango du: lasaia eta aire garbiduna izango da, baina beldurrik gabea, gizarte-prekariateterik gabea, errepresiorik gabea, errua ahulenei leporatzen dien asmakeriarik gabea. Mundu berri bat, non euskal gizarte zibila berriro kalera aterako den, gizarte-justiziaren alde lan egiten jarraitzeko, elkartasunez. Mario Benedettik esango lukeen moduan, kalean, besoz beso, bi baino askoz ere gehiago gara.

**Euskadiko GGKE-en Koordinakundeko kideok gure bitarteko guztiak eta esperientzia jarri nahi ditugu euskal gizartearen eskura, COVID-19aren krisialditik modu bidezko eta inklusiboan ateratzea lor dezagun, inor atzean utzi gabe.**

Euskadin, 2020ko apirilaren 8an



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak 1988. urtean sortu zen eta garapeneko 79 GGKEz osatuta dago. GGKE horiek Euskadiko lurraldeetan ezarrita daude eta lankidetzaren esparruan ari dira lanean. Euskadiko GGKE-en Koordinakundeak garapenaren esparruan diharduten GGKE multzo bat biltzen du; GGKE horiek jokabide-kode komun baten arabera jarduten dute lankidetzan, giza garapen iraunkorra eta berdintasunezkoa lortzeko.

